# Enkarterrietako ALTXORRAREN BILA

## MINERALAREN ERAUZKETA FASEA

## 2. astea

Minerala lortzeko tokirik aproposenak topatzea ez zen lan erraza. Bere ezaugarriak kontutan hartuta are eta zailagoa zen ateratzea. Horrexegatik meatzarien lana oso gogorra zen...euren eskuz zulatu zituzten mendi hauek.

## Ibillbide gidatua

1. Meatzariak Enkarterrira etorri baino askoz ere lehenago 20 metroko animaliak bizi omen ziren bertan. Non topatu ditzakegu?

a. Venta la perra Koban
b. Karpinen
c. Cabarcenon

2. Meatzaldeko meategiak ez ziren koba antzekoak, lur azalekoak edo aire zabalekoak baizik. Zer esan nahi du horrek? Ortuellako Concha II meategira joaten bazara ulertuko duzu.

a. Meategiek bere jarduerarekin airea zabaltzen zutela
b. Mendi antzeko zulo sakona zirela
c. Mineralen kanpoko ustiapena zela

3. Sahats Energia Berritzaileen Zentroan bertoko landareak ezagutzeko parada izango duzu. Espezie hauek meategietako lanaren eraginaz desagertu ziren. Zer esan nahi du bertokoa izateak?

a. Dagoen tokian sortua dela
b. Arraseko mozketa baten ondoren sortzen diren landare espezieak direla
c. Meatzaritzak suntsitutako paisaia batetan berriz sortzen diren espezieak direla

4. Ekialdeko Meategietara hurbildu eta gero Gallartan dagoen Meatzaritzaren Museoa topatzen saiatuko gara. Bertan meatzaritzan erabilitako tramankulu eta artikulo ikusgai dira. Zein da mineralaren garbiketarako erabiltzen zen tresna?

a. Ontzi-ilarak
b. Txokloak
c. Tromelak

5. Ekialdeko Meategietako meategi eta aisialdirako guneetatik ibiliz La Arboleda topatuko dugu. Meatzari auzo honek populazio handia izan zuen. Horregatik bertan ospitala ere izan zuten. Asmatu horren izen zuzena.

a. Parkotxa
b. Matamoros
c. Orkonera

6. Meatzaritzaren hasiera ibilibidean La Arboleda antzeko beste meatzari auzo bat topatuko dugu. Aukeratu ezazu izen eta herri zuzena.

a. Gueñesko La Aceña auzoa
b. Muskizeko Urallaga auzoa
c. Galdamesko Urallaga auzoa.

## Proba praktikoa

Artitektura ataleko 15.n ibilbidean aurkituko duzun jokua burutu beharko duzue ahalik eta denbora gutxienean. Berreraiki azkar Galdamesko Montellano auzoa eta Enkarterriko altxor izkutatik hurbilago egongo zarete.

Bukatu ondoren sartu kodea emaitzen taulan.